




**AZKEN FASEA (2005-04-14)**

**1.- LEHIO BOROBILA**

Eliza bateko fatxadako beirateak ondoko irudia bezalako lehio borobila dauka.



Zirkunferentzia txikiaren erradioa 20 cmkoa dela jakinda, urdina eta berdeen artean, zein da kolore gehien erabili dena?



**2.- ARTE LANA**

Ionek arte lan matematiko bat egitea erabaki du. Horretarako  $m^2$  bateko ohiak bat 9 lauki berdinetan zatitu du eta erdiko laukia gorritz margotu du.

Gero gainontzeko beste 8 laukiak beste 9 laukotxo berdinetan zatitu ditu eta erdiko laukitxoa urdinez margotu du.



Berrito margotu gabe geratzen diren laukitxo guztiak beste 9 laukitxoetan zatitu ditu eta erdiko laukitxo horiz margotu du. Prozesu hori jarraitzen du kolore ezberdinak erabiliz erdiko laukitxoen multzo berri bakoitzerako, ohiaren azalaren erdia baino gehiago margotuta izan arte.

Zenbat kolore ezberdin erabili du Ionek eta zenbat erdiko laukitxo margotu ditu?

### 3. ZENBAKIZKO ESKAILERA

Zenbaki bikoitiak ondoko era horretan kokatzen dira, zenbakizko eskailera osatuz:

				...	
			20	...	4.Mai
		12	18	...	3.Mai
	6	10	16	...	2.Mai
2	4	8	14	...	1.Mai
<hr/>					
1.Zut	2.Zut	3.Zut	4.Zut		

Ikus dezakezunez, lehenengo zutabea zenbaki bakarra dago, 2a, bigarrenen bi zenbaki daude: 4 eta 6a..etab. Honela behin eta berriro egitekotan:

- Zer zenbaki dago kokatuta 20. zutabeko goiko aldean?
- Zein zutabetan dago kokatuta 2006 zenbakia? Eta zein mailatan?

### 4.- ATLETISMO LEHIAKETA

Eduardo Mikel eta Iñigo beraien arteko lasterketa batzuk egin zituzten. Lehenari "p" puntu eman zitzaizkion, bigarrenari "s" puntu eta hirugarrenari "t" ( $p > s > t > 0$  izanda). Lasterketa guztiak bukatu ondoren Eduardok 20 puntu lortu zituen, Mikelek 9 eta Iñigok 10. Lehenengo lasterketa Iñigok irabazi zuen.

- Zenbat lasterketa jokatu ziren?
- Zenbat puntu zegokien lehenengo sailkatuari, bigarrenari eta hirugarrenari?.